**MOTZ - MOTZ SAN ANTON EGUNA ARGAZKITAN GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN**

**KIROLA 58. JUAN MUGERZA KROSA JOKATUKO DA ASTEBURUAN**

# BARREN

ASTEKARIA

EIGOIBARKO ASTEKARIA 2001 Urtarrilaren 19a / VIII. urtea / 347. zkia




JUAN MUGERZA 58. NAZIOARTEKO KROSA

## Paul Tergat handia Mintxetako irteeran izango da

ABARKA

Errosario, 31 • Tel. 943 74 29 00

ASTIGARRAGA
KiRoLAK

MARKA ONENAK
AUKERA HANDIA

Errosario, 16-18 · Tel: 943 74 32 68

berenJena
JANTZIDENDA

San Bartolome, 28 · Tel. 943 74 33 20

je, Aelai

San Bartalome, 38 • Tel: 943 74 08 15

GARATE

San Bartolome, 1 3 • Tel: 943 74 1 1 29

gofi

Gizo Eskubideen plaza, 1 • Te1. 943 74 46 53

# B E H E R A P E N A K

IRIONDO
fNA
09
KiRoLAK

San Frantzisko, 37-54 Tel: 943 74 09 56

L T E

San Frantzisko, 43 • Tel: 943 74 41 99

Lizzy

Errosario, 25 • Tel. 943 74 23 02

~1111

Luvik
oinetakoak

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 31

1

Maidagan

Lois

San Frontzisko, 20 • Tel: 943 74 40 98

PAUSOKA

San Frantzisko, 20 • Tel: 943 74 08 95



## Behi eroak?

Belarjaleak izanik, animali jatorria duten pentsuak jaten ematea baimendu zuten politikariek duela urte batzuk. Haien gorputzak aldaketa onartu ez, eta "erotu" egin omen da zenbait hehi. Baina lehen sektoreari dagozkion moeta honetako baimen eta erabakiak ez dira nola hala hartzen. Sektorea kontrolatzen duten korporazio multinazionalen mesederako hartzen dira (Nestle, Monsanto, Bayer...): gehiago, azkarrago, eta ondorioz merkeago ekoizteko.

Nekazaritzarekin ere gauza hera gertatzen ari da. Europako kontseiluak arto, gari, tomate, etabar, hazteko genetikoki manipulatutako haziak erabiltzeko baimena emana du aspalditik. Ekoizpen era masifikatua, multinazionalen eskutik, gure herriko ohiko nekazaritza eta abeltzantza deusezten ari da. Gauzak en•otik aldatu ezean epe ez oso luzera Euskal Herriko lehen sektorea, gure kontrolpetik geroz eta urrunago dauden enpresa bulego atzerritar eta kapitalista hutsen eskuetan geldituko da. Eta gainera, epe luzera, inork ez du gure osasunean gerta daitezkeen aldaketen ardura hartuko (legeak etiketan produktua manipulatuta dagoela jartzera ez derrigortzeaz gain, enpresa ekoizleak epe luzera jaki horrek eragin ditzakeen kalteen erantzule izateaz libre uzten duelako).

Behiak ez daude eroak: horrelako politika ekonomikoak bideratu eta onartzen dituzten polikari eta herritarrak gara burutik jota gaudenak.

Lorea Perez de Albeniz

(1)

0

N.



# Goruntz begira

**Batzuetan** merezi du goruntz begiratzea eta zeruak eskaintzen dizkigun ikuskizun zoragarriak ikustea. Izarrak, ilargia eta gure mundutik at gertatzen diren fenomeno ikusgarri guztiak, ilargi eta eguzki eklipseak, meteorito euriak, supernobak, kometak, etabar. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina denek dute beren enkantua. Zoritxarrez, gu gauden lekutik, gertaera batzuk ezin ditugu ikusi, eguzkiarekiko lurraren inklinazioa eta orbita onenak ez baitira.

Gertaera hauek, niri behintzat, nere pentsamendu guztiak anulatzen dizkidate, eta nire sena hegan egitera daramate, eta betiko galderak behin eta berriro burura etortzen zaizkit: Norbait bizi ote da hor kanpoan?, ezagutuko ote d(it)ugu?, nolakoa(k) izango ote d(ir)a; gure trazakoa(k),edo filmeak jartzen dituzten moduan, aurreratuagoa(k)'?, asmatuko al dugu beraienganako tratuan, mundua dagoen egoeran ikusi eta gero?

Momentuz galdera hauek guztiak airean daude. Gaur egun gure irudimena argia baina bizkorrago doa eta mota guztietako erantzunak eta hipotesiak eskaintzen dizkigu.

Ez dakit espaziotik mezu bat bidaltzen duten edo ez ikusteko adina biziko ote naizen baina ziur nago, unibertsoa hain handia izanik, hainbeste galaxia, izar eta izar sistema izanik, norbait egon behar dela hor kanpoan. Agian, guk egiten ditugun galdera berdinak eginez.

Baina hori, gure munduarekin bukatzen ez badugu, epe luze batean ikusiko dugu.

**Jokin Martinez**

motzak ..........................................
gehigarria .....................................
kiRolAk ......................................... 19
aGenda 24

# Urruzunoren
## begi izkutua



Kristalen atzetik begira pasatzen dute eguna. Gurpil-aulkian egoten dira batzuk. Bastoiaren laguntzarekin nahikoa dute beste batzuk, Elkarrekin konpartitzen dute zahartzaroa. Behin, gazteak izan ziren, geureak baino bizitza higitsuagoen jabeak ere izan ziren ziur aski. Baina orain, amankomunean duten ezaugarri horrek bereizten ditu gugandik.

Hor daude. Egunero. Egoitzaren kristalen atzean. Madalako bizitzaren testigu isil eta lasaiak. Eta gainontzekook hor daudenik ere ez dugu ohartu nahi, Etorkizunari beldurra baitiogu. Zer ikasirik ez bagenu bezala...

**Iñigo Otaño**

URRUZUNO LITERATUR TAIDEKOA

## ESKERRIK BEROENAK GUZTIOI

Lerro hauen bidez, kabalgata antolatzen 25 urte bete ondoren, Udalari gure eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiogu, emandako laguntzarik gabe ezin izango genuen gure proiektua martxan jarri-eta.

Gure eskerrik beroenak Udal Txistulari Taldeari eta Haritz Dantzari Taldeari ere, hainbat urtetan beti gurekin parte hartzeko prest agertu baitira. Baita Musika Eskolako dantzariei, akordeoi taldeari eta trikitilariei ere, denek beti lagundu baitigute.

Bestalde, banku, kutxa, bulego eta aseguru etxeei eskerrak eman nahi dizkiegu euren karamelo eta laguntzagatik, eta baita ere herriko harakin eta txarkuteroei, emandako txorizoei esker parte hartzen duten 200 gaztetxo eta haurrei ogitartekoak ematen dizkiegulako.

Eta ez ditugu ahaztu nahi hainbat eta hainbat gizon, emakume, gazte eta haur, urtero musutruk laguntzen digutenak eta baita ere 25 urte hauetan zehar lagundu diguten guztiak, denei gure eskerrik beroenak.

Eskerrik asko Elgoibarko herriari bere laguntzagatik.

Eskerrik asko benetan denei.

**Katekistak**

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea.
tt 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

barren topagunea..com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.comTharren
AFIGITAAR¯ZAILEA

LASLINTZAILEA Elg011140 Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru KAZETARIAK ORS AgIrreazaldep,Asier Orbea PUBLIOTATEA Andotb Agirregemezkorta MAKETATZAILEA BeaArISOia ADMINISTRAZIOA Ainara Ibañez GERENTOA Rafa Abarez, M. Angeles Ortuoste. KOKABORATZAILEAK Amaia Lariz, Unal Argarate. Eguzlerse Aranbem, Lorea Perez de Albeniz. Aitor Zabaleta, Leire Urkich,Olga Unzilla. Montse Arregi. Juanito Gorostba, Amaia Urzelai, Ion GunuNaga. Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T. Azauxo ESALOIA Golzon Garateren liburutik iNPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAJLIJA 85.1.038/92 ISSN 1139-1855

Mer
Zrd ELGOIBARK0 IZARRA
LULTAL MLA111.1

*Elgolbarkt, Udalak, Eusko Jaarlaritzako Kultura Sailak*
rra *FOrlf Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

Eigg, ,,,,,,,,,,,,,,

LNDANOBAT

¯ GOITI
GRUPO 04 4CB.47

200 1-1-19

## r tkID111111

• Sau Rokera bidean, trenhide aldameneko depositoan oso usain txarra egoten dela-eta herritar batek honako galdera hau luzatu digu: Ezin al da ezer egin hori konpontzeko?

Galdera hau erantzuteko adituengana jo behar izan dugu. Honako hau erantzun digu Hirigintza Saileko Arduradunak: "Depositoa deitzen dion hori garai batean depuradora izan zen baina gaur egun ezeztatuta dago. Oso modu eta leku desegokian dago eta tuberiak ere ez daude egoera onean. Hori dela-eta, trenbidera isurketak daude. Hau konpontzeko proiektua martxan dago baina oraindik luzera joko du. Tuberia berri bat luzatu behar da trenbide azpitik Bernardo Ezenarro kaleraino baina, esan bezala, oraindik gehiago itxaron beharko da".

## (5xnJ,\lt

• Emakume batek herrian egon ohi diren funtzio batzuk ikusi ahal izateko leku falta salatu nahi du: Herriko Antzokian, adibidez, 'Tako1o, Pirritx eta Porrotx' ikusteko, haur asko kanpoan gelditu ziren eta ez da lehen aldia izan, `Txirri, Mirri eta Txiribiton'ekin ere berdina gertatu baitzen. Sarrerak takilan saldu beharko lirateke eta ez aurrez, ni bezala lanean daudenei ezinezkoa baitzaigu aurrez erostea. Bi sesio ipintzea edo ikuskizunak leku handiagoan izatea izango litzateke nire ustez irtenbideetako bat",

## 11110111

• Herritar bat etorri zaigu honako txaloarekin: "Benetan txalotzekoa da Euskadiko Kutxak martxan jarri duen kanpaina. Banketxearen eta bezeroaren arteko komunikazio guztiak euskara hutsean izateko aukera eskaintzen dute. Orain arte, diru eta numero kontuetan gaztelaniaz errazago moldatu bagara ere, oraintxe daukagu aukera gauzak aldatzen hasteko. Euskadiko Kutxak lehen pausoa eman du, orain euskaldunoi clagokigu erantzutea",

## PRAGA eta BUDAPEST



**Ainhoa Eturak** eta Roberto Gonzalezek 12 egun pasa zituzten Txekia eta Bulgariako hiriburuetan, Pragan eta Budapesten, alegia. "Urrian genitxun oporrak eta hondartzara juteko beranduegi zanez, Europa ezagutzeko une aproposa zala iruditxu jakun. Dana dala, urrian joanagatxik, ez ginan turistetaz librau, Pragan eta Budapesten urte guztixan eoten baitia turistak". Oso hiri politak direla aipatu digute, etxe eta monumentu ederrak edonon daude, baina Pragatik zerbait aipatzeko eskatu diegunean, operara joan ziren eguna dute gogoan, "Opera zauan edifiziva bera eta inguruan sortzen zan girua berezixak zian. Gainera, edozein juteko modukua da, sarrerak 500 pta. balio zaban-eta". Pragatik 100 km.tara dauan Karlovy Vary hiria ere asko gustatu zitzaien, "13 iturburu daude, bakoitza bere propietate bereziekin, eta bainuetxeegatik da ezaguna hiri hau". Budapesten, berriz, bainu turkoak probatzeko aukera izan zuten, "Danone gorputzen anuntziva grabau zaben bainuetxian eon ginan. Marmolezko zutabez beteta zauan".

**3IL3FICI EXPeESS**

BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA

Foruen enparantza, 3 Tei: 943 74 39 12



## Ei Salvadoppeko katastrofea dela-eta...

# ZER EGIN DEZAKEGU LURRIKARAN KALTETUTAKOEI LAGUNTZEKO?



### ANGEL SANCHEZ

**44 urte, pintorea**

Diruz lagundu. Oraindik ez dut dirurik eman baina kanpainaren bat martxan jarriz gero bidaliko dut dirua. Nork daki, egunen batean agian, guk beharko dugu-eta.

### FERNANDO EIZAGIRRE

**63 urte, garraiolaria**

Dakanak ahal dabana ematia, gainera beti holako desgraziak pobrien tokixan pasatzen dia. Nik dirua baino materiala ematia hobe dala pentsatzen dot.





### MATILDE DAQUINTA

**65 urte, etxekoandrea**

Tristea litzateke ezer ez egitea zerbaitekin lagundu badaiteke. Nik janaria-edo bidaliko nuke, baina ez dut uste hernen inon batzen ari direnik.

### MARISA RODRIGUEZ

**58 urte, etxekoandrea**

Herritarrek laguntzea ongi dago, baina gobernuek ere zerbait egin beharko lukete. Armetan hainbeste gastatu beharrean laguntzen erabiliko balute, askoz hobe.





### JAVIER PUYADENA

**41 urte elektrohigatzailea**

Jendiak boluntadia badaka, gauza asko ein leikez. Adibidez, tailarretan egun bateko edo ordu bateko soldatia ematia laguntzeko modu bat izango litzake.

### CELINA FUENTES

**50 urte, administraria**

ONGei diruz lagundu, oraingoz dirua baita eskatu dutena. Guk lntermonen bidez bidali dugu laguntza, eta aurrerago laguntzeko beste zerbait egin badaiteke, ahaleginduko gara.



IKASTARO TEORIKO INTENTS1BOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
1ZENA EMATEAN `Yoi OEKO BEHERAPENA
9441(1‘q4511 ~19/44~4 teoulo4 /6 tatetelu,
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

# Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzeari




ATOZ

urtarrilaren

27rako

antolatu dugun

BAZKARIra

eta azaldu zure

ESKER ONA:

**1956-2000**

**44 urte elgoihartarrok euskaldunagoak izateko ahalegiñean**

euskara ikasten

jardun dutenei.



euskara irakasten.

jardun dutenei.



ANTOLATZAILEA:

arigera

Helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektua

BABESLEA:

Elgoibarko Udala

HARZUBI JATETXEAN, eguerdiko 14:30etan

IZENA EMATEKO:
AEK euskaltegia - Udal euSkaltegiii
Elgoibarko Izarra - Udal Euskara zerbitzua

AZKEN EGUNA: Urtarrilaren 24a
PREZIOA: 2.500 pta.

helduen euskalduntze-alfabetatzea

bizirik mantendu dutenei.

# Ertzantzaren Bandaren kontzertua eta haur parkea izan dira San Anton eguneko ekintza nagusiak

## Jaietako egitarauaren barruan, gaur opera emanaldia dago Herriko Antzokian





*Gaztetxoenek ezezik gurasoek ere gozatu zuten haur parkean. Herriko Antzokian, berriz, 300 lagun inguru bildu ziren Ertzantzaren Bandak eskaini zuen kontzertuan.*

Aste erdian jai eguna izatea ez da ohiko gauza, baina Elgoibarko langileek pozik hartu zuten San Anton Eguña. Azken urteotan bezalaxe, aurten ere adin eta gustu guztietarako hainbat ekintza antolatu dituzte San Anton Egunaren inguruan, eta jaieguna aprobetxatuz ekitaldiokin gozatu zuten herritarrek. Hasteko, Santuaren omenez meza izan zen eta Parrokiako abesbatzak hartu zuen parte bertan. Ondoren, musikazaleek Ertzantzaren Bandaren doinuak entzuteko parada izan zuten. 300 lagun inguru hurbildu ziren Herriko Antzokira San Anton jaietan ia urtero bisitatu ohi gaituen banda honen kontzertua entzutera.

Bestalde, eguraldia lagun, haur eta gaztetxoek Plaza Handian jarritako jolas parkean eman zuten eguna. Baina tartean salto egiteari utzi eta Hortzmuga taldearen "Kolore" antzezlanari so izan ziren umeen begiak kalean.

**`Emakumezkoen zapatak' opera**

Bestalde, gogoratu San Anton jaietako ekitaldien barruan, gaur, ostirala, gaueko 22:30ean, "Emakumezkoen Zapatak" opera emanaldia eskainiko duela 'Sarobe Opera Estudioa'k, Herriko Antzokian,

Aurtengo San Anton jaiek 1.800.000 pezetako aurrekontua izan dute.


iff,utacb ——— cle eforwrod'

Jausoro plaza, 1 behea
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
Eposta: mqsluisa@euskalnet.net

ZORIONAK!



ELGOIBARKo DELEGAZIOAK URTERO
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

Mª JOSE MIRANDAri EGOKITU ZA10

DRIGATUA: M, luisa llrain Arakistaia



## Moru mendiaren inguruan parke tematikoa egiteko asmoa du Udalak

San Pedro bailarako Moru mendian Burdin Aroko aztarnak daudela ikusita, Udalak erabilera turistikoa eman nahi dio gune honi. Ingurua txukundu ostean parke tematiko bat egin nahi dute bertan, Sasiak kendu eta Burdin Aroko herrixka inguratzen duen horma agerian utziko dute. Ondoren, gune hori babestu eta aztarna arkeologikoak berreskuratuko dituzte. Gero. Moru inguruan parke tematikoa antolatu nahi dute, panelen bidez herritarrei garai hartako gure arbasoen bizitza ezagutzera emanez. Hirugarrenik. San Pedro bailaran gela bat antotatu nahi dute bideo, irudi edo hitzaldien bidez azalpenak emateko.

## 56 haur eta gaztek hartu dute parte Atxutxiamaika eta GAZ-T taldeen gahonetako ekintzetan

Gabonetarako Atxutxiamaika eta GAZ-T taldeek antolatutako ekintzetan 56 haur eta gaztek hartu dute parte. Flaur Hezkuntzako 23 ume gustura aritu dira eskulanak egiten eta jolasean. LH 1. 2. eta 3. mailako umeak Eibarko `Guai'parkean izan ziren, baita pailazoak ikusten eta sukaldari lanetan ere. DBHko ikasleek material berriak egin dituzte eta musika entzuten, aldizkariak irakurtzen eta tertulian ere egon dira. Arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaileei eta antolakuntzan eta baliabideak uzten lagundu duen jendeari.



## Hilaren 21era arte egongo da ikusgai seilu erakusketa

Urtero San Anton jaien inguruan egin ohi duen bezala, aurten ere Elgoibarko Filatelia Elkarteak zigilu erakusketa jarri du ikusgai Kultur Etxean. Joan den urtarrilaren 13an, larunbatean, inauguratu zuten eta hilaren 21era arte bisitatu ahal izango da. Inaugurazio egunean bildurnagileek eta laguntzaileek oroigarri bana jaso zuten. Besteak beste, gabonak irratia eta telebista, abiazioa eta garraioak, odola ematea eta trenak gaitzat hartuta egindako zigilu bildumak ere ikusi ahal izango dira Kultur Etxean.



## Txankakua Merkatarien Elkarteak zozketako zenbaki sarituak eman ditu ezagutzera

Gabonetan erosketa asko egiten direla aprobetxatuz Txankakua Merkatarien Elkarteak erosleen konfidantza saritu nahi izan du. Horretarako 300.000 pezeta banatu ditu erosketa txeketan. Guztira 4 txeke banatuko ditu eta hona hemen zenbaki saridunak:

1. 21.061 - 150.000 pta.
2. 30.827 - 75.000 pta.
3. 53.044 - 50.000 pta.
4. 33.847 - 25.000 pta.

## Kontu korronteak zahaldu dira El Salvadorrera dirua hidaltieko

Hondamendia dela-eta Nazioartetik Iaguntza bidaltzen hasi dira E1 Salvadorrera. Diruz lagundu nahi dutenek hona hemen hainbat kontu zenbaki:

Kutxa
210100921500101969
Banco Guipuzcoano
004200019101100326
Euskadiko Kutxa
30350050710500046056
BBVA 01820915110201520000
BCH 00490001592810016616
Banco Vasconia
00750001890606695077
Banco Santander
00497003129107056O7

## Elgoibarko hiru ikastetxek hartuko dute parte Medicus Mundiren egitasmoan

Medicus Mundik "DBHkoentzako zinea" hezkuntza proposamena jarri zuen martxan 1999an, irakasleek gazteak elkartasun baloreetan hezteko. DBHko 4. mailako ikasleei zuzendutako egitasmoak `La Marcha' pelikula izango du oinarri aurtengo ikasturtean. David Wheatleyen filmak gosez hiltzera kondenatutako Sudango errefuxiatuek Europarantz hasitako ihesaldia deskribatzen du. Pelikula ikusi ostean gaia hainbat ikuspegitatik landuko dute: maternatika, natur zientziak, gizarte zientziak, musika... Beti ere ikuspegi kritikotik eta gogoeta eginez. Munduko injustiziak ikusita irakasleek eta gurasoek eskatu zuten gazteengan konpromisozko gizarte jarrerak sortzeko horrelako programa bat sortzea, eta asmo horrekin jarri zuen martxan Medicus Mundik sentsibilizazio eta hezkuntza ekimena.

## Ane Odria eta Maite Solas elgoibartarrak saritu dituzte Mendaroko Idatz Lehiaketan



Gabonetan urtero antolatu ohi dute Mendaron Idatz lehiaketa eta jadanik eman dituzte ezagutzera irabazleen izenak. Tartean badira bi elgoibartar ere: DBH 1, eta 2. mailakoen artean bigarren saria eman diote Ane Odriari 'Hiz egiten zuen piragua lanarengatik' eta Maite Solasen 'Paradisuaren bila' lanak eskuratu du bigarren saria, DBH 3. eta 4. mailakoen eta Logsekoen artean. Zorionak hada idazle gazte hauei.

## Gosari osasuntsua zein den ikasteko aukera izan dute Herri Eskolakoek

Herri Eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek gosari kardiosasungarria dastatzeko aukera izan zuten Agipan, Gipuzkoako Okinen Elkartea, eta Gipuzkoako Poliklinikaren ekimen bati esker. Poliklinikako mediku batek gosari osasuntsu batek izan behar dituen ezaugarriei buruzko azalpen bat eman ondoren, zerealak, esnea, fruta eta oliba olioaz osatutako gosaria jan zuten ikasleek.






BIODEPILAZIO HALAWA METODOA

*guztiz Sistema )Vaturala*

BAR1ZE, ARMIARMA BASKULAR, ILDO, DERMATITIS, PSORIASIS, ZELULITIS, HAURDUNALDI, LODITASUN, ETB. KASUETARAKO BEREZIKI GOMENDATUA.

*2ure erosotasunerako etxez-etxeko zerbitzua ere eskaintzen dugu.*

**EGUNERO**

Telefonoa: **943 744 669**
Mobila: **653 717 874**

OSTEGUNETAN KONTSULTA Surya Belardendan

2001ko uriarrila 19. VIII urtea/247 zkia · G A Z T E G I G A R R I A

# GaztiaBarren

## a NAIZ




EstEnsioak GAIA latSagabE NAOMI REVERT a Ea ELIKAGAIEI BURUZKO HITZALDIAK

## Into the light

"Argian 10!" da David Coverdale aheslari britaniarrak dakarkigun lanik beffiena. Deep Purple taldearekin argitaratutako "Burn" edota "Stormbringer" diskoekin egin zen ezagun Coverdale. Bestalde, Whitesnake izan da here bizitzako taldea, bandako liderra izanik makina hat lan kalerant haititu "suge zuriekin": "Love Hunter", "Ready An - Willing"... "Into The Light"en, besteak beste, Earl Slick gitarrajolea eta Marco Mendoza baxujolea hezalako musikariak daude.

CD berri honekin sustraietara itzuli da abeslari ingelesa. Izan ere, soula, bluesa eta rocka baitira nagusi disko guztian. "Into The Light" introaren ostean Jimi Flendrix gogora clakarkigun gitarra doinua entzun dezakegu. Seattle-eko gitarrajolearen omenezko "River Son,g" kanta disko guztian entzungo dugunaren aurrerapen hikaina da. "She Give Me..." eta "Cry For Love" dira, ziur aski, ahesti blueseroenak eta "Love is Blind" halada alai horietakoa dugu. "Slave" hlues&rock indartsuan, berriz, Coverdalek here ahestari eta konposatzaile dohainik onenak agertzen ditu. "Wherever You May Go" kanta malenkoniatsuarekin isten da diskoa. David Coverdale heraren hitzetan, argitaram duen lanik "zintzoena" da "Into The Lit.7.1n", here hetiko sustraiak eta sentipenak isladatzen baitira bertan. Dudarik gabe, lan bikaina.

**Jon** Gtt rrut xaga




### OIHANA MARTINEZ eta BIKENTZI URKIRI

# "KUriOSitatE hutsEz aur

**DUELA GUTXI EUSKAL TELEBISTAK 'CAST1NG' ERRALDOI BAT EGIN DU. ERRALDOIA DIOGU, IA 2.000 GAZTE AURKEZTU BAITIRA "HASI BERRIAK" DEITUTAKO SAIO BERRI BATERAKO PARTAIDE IZAN NAHIAN. JENDETZA HORREN ARTEAN ELGOIBARTARREN BAT EGOTEA EZ ZELA HARRITZEKOA IRUDITU ZITZAIGUN BARRENEN ETA, HARA NOLA, OIHANA MARTINEZEN ETA BIKENTZI URKIRIREN BERRI IZAN GENUEN. 18 ETA 17 URTEKO LAGUN HAUEK KURIOSITATE HUTSEZ BESTERIK EZ BADA ERE, 'CASTING' HORRETARA AURKEZTEA PENTSATU ZUTEN. BIKENTZIK EZ ZUEN LEHEN FROGA GAINDITU BAINA OIHANAK LAU PASATU ZITUEN. "ZORTE HUTSA, - DIO BERAK, BIKENTZIK HONETARAKO GEHIAGO BALIO BAITU". BERAIEK AZALDUKO DIGUTE ONDOEN 'CASTING' HONEN BERRI.**

Nori okurritu zitzaion `easting'era joateko ideia?

Biena izan zen ideia. Biok ikusi genuen iragarkia eta ez genuen elkar konbentzitu beharrik izan. Enteratu ginenean elkarri komentatu genion eta kuriositatea piztu zitzaigun.

Lehenengo aldia al da?

Bai. Egia esan, nik,-dio Oihanak, kuriositate gehiago nuen, baina Bikentzirentzat serioagoa zen. Berari etorkizunean ikasketak interpretazio arlotik bideratzea gustatuko litzaioke.

Hautatuak izateko esperantzarekin joan al zineten?

Iritsi ginenean, ikaragarrizko jende ilara zegoen eta `ez gaituzte hartuko' pentsatu genuen. Gainera, jende `farnoso' asko ikusi genuen eta oso zaila iruditzen zitzaigun hori lortzea. ETBn lan egiten duen jendea ikusi genuen eta gure baino askoz gehiago prestatutako jendea zegoela iruditu zitzaigun.

Zer nolako frogak gainditu behar zenituzten?

Lehenengoa, imajinaren froga zen. Zeure burna saltzea zen kontua eta gero, kamararen aurrean egin behar zenuen gauza bera. Aurrera pasatuz gero,



# Eztu ginEn 'castingkra"

neska batek pasiloan zehar galderak egiten zizkizun eta erantzunez mugitu behar zinen. Hirugarren froga honetan, argazkiak ere atera zizkiguten. Hortik hautatuak izan ginen edo ez jakiteko zerrenda bat zabaldu zuten eta han agertzen ginen izenak, dio Oihanak, Iaugarren froga egitera pasatu ginen, interpretazioarena. Azken froga honetan abestu eta dantzatzeko ere eskatu ziguten.

**Pentsatzen zenuten bezalako esperientzia izan al da?**

Bai. Oso ondo pasatu dugu. Esperientzia polita izan da. Nik pega bakarra ikusi nuen, -dio Bikentzik, ipterpretazioaren froga izan behar litzateke lehena. Nire ustez, jende askok ez zekien euskaraz ondo hitz egiten eta lehenengo frogan aurrera egin zuten. Interpretazioan berriz, euskaraz jakin gabe ezin izango zituzten hautatu eta aurreko lan guztia aurreztu ahal izango zuten.

**Berriro horrelako `casting' batera aurkeztuko al zinatekete?**

Noski, ez gara dezepzionatuta gelditu, hurrengo batera ere aurkeztuko gara.



ikarlanean argitaletxearen "Branka" sailean "Bi ipuin harrigarri¯ liburua topa dezakegu. Egilea Txema Garent-Viana gipuzkoarra da. lzenburuan agertzen den bezala, egileak bi narrazio lahur bildu zituen bere lanean. Lehenengoa, itsas girokoa da eta bigarrena, aldiz, lehorrean kokatitta

"Izotzaren gorria¯ izenburuko istorioa. "Anit Maria" itsasontziaren barnean girotua dago. Bertan, hilda agertuko dira tripulazioko kide batzuk eta hilketa hauen egilea aurkitzeko ez da intriga faltako.

Bigarren ipuinean, "Azken errainua" deiturikoan, neska batek autoestopa egiten ari den mutil gazte bat hartuko du here autoan eta baserri zaharkitu batera eramango du. Aurreko ipuinean bezala, hemen ere idazleak ezusteko amaiera eskaintzen dio irakurleari.

**Azken finean, hi istorio entretenigarriz osatuta dago Txema Garcia-Vianaren liburu hau. Aipagarria da egilearen idazkera, oso ongi idatzita baitaude "Bi ipuin harrigarriT honetako hi narrazioak.**

**Jon Eugi**



## estensioak



# IlE motzEtik mElEna luzEra, Egun batEtik bEstEra

**BEhErapEnEn garaia askok Eta askok armairuko arropa bErritzEko aprobEtxatu ohi du, baina arropa aidatu EzEzik ilEa ErE azkEn modara EgokitzEn du jendeak, batEz ErE jEndE gazteak. Batzuk kolorEz aldatzEn dutE, bEstE batzuk moztu, baina azkEn aldian asko dira ilEa luzatzen dutEnak. Bada panpin bat kordari EraginEz ilEa hazten zaiona, bada, panpin horrEn antzEra norbErE ilEari bEstE bat gEhituz Egun batEtik bEstEra mElEna luzea izan dEzakE aurrEz ilE motza zuEn neska Edo mutil batEk. EstEnsio Edo luzapenEn bidEz EgitEn dutE hori ilEapaindEgiEtan. Eta gEro Eta gEhiago dira norbErE buruari itxura bErria Eman nahian tEknika hau erabiltzEn dutEnak. BEraz, EZ harritu atzo portalEan ilE motzarekin ikusi zEnuEn bizilaguna gaur ipurdirainoko melEna luzEarEkin ikustEn baduzu.**

Alaznek duela hilabete eta erdi inguru itxura aldatzeko garaia zela erabaki, eta orretarako bide bat orrazkera ezberdin bat aukeratzea zela ikusi zuen. Estensioak jarri zituen ile guztian, txirikorda edo `trenza' itxurako ileekin ibili da, ile moratuarekin, hain zuzen ere. "Pixka bat kanbixatzia nahi naban eta ahizpa pelukeria izanda, aldaketa haundi bat eitxia erabaki naban. Gainera azken aldixan orrazkeria sarritxan aldatzen dot".

Itxura beni hau duenetik jendeak kalean begiratzen al dion galdetu diogu Alazneri, eta baietz erantzun digu. "Kolore bizixak gustatzen jataz eta hotTegatxik aukeratu nitxuan estensio morauak, baina gero konturatu naiz hain ile arrarua ipinitxa jendiak ezberdin begiratu diala". Orain dela gutxi kendu ditu Alaznek estensioak, "estropeauta zaozelako", eta oraingoz berriz egin artean denbora bat pasako dela argi utzi digu, gero pentsatuko du zer egin.

## OrrazkEra bErria

Estensioak jartzearena ondo pentsatu beharreko gauza bat da. "Orrazkera erabat aldatzeko modu bat" dela esan digu Amaia Peñagarikano ileapaintzaileak, eta definizio horretaz gain, beste hainbat argibide ere eman dizkigu.

Mota askotako estensioak daude, "trenzak, lisuak, rizauak ere badaude, kordoiak... pila bat. Koloriak ere asko izan leikez, hasi naturaletatik eta kolore bizixetaraino. Materiala ere artifiziala edo naturala da. Naturala askoz kamaua da eta horregatxik jendiak artifizialak ipintzen ditxu".

**"IlEan EstEnsioak jartzEa orrazkEra Erabat aldatzEko modua da"**

AMAIA PEÑAGARIKANO
Ileapaintzailea

Diru kontuaz ere hitz egin dugu Amaiarekin: "Estensio motian araberakua da eta zenbat eta gehixao ipini, orduan karuaua da. Alaznek euki zabana 45.000 pezeta inguru kostauko litzake, ile naturalakin eta lisua ipiniz gero, 90.000 pezetatik gora. Baina hori orraztu, tintau... ein leike".

## Ongi zaindu

Estensioak jartzeko aurrez ongi pentsatu behar da, batetik ileapaindegian 5 ordu inguru pasatu behar direlako eta bestetik, edozeinek ezin dituelako ordaindu. Hala ere, aspertuz gero ilea moztu gabe kendu daitezke. "Estensivak ipintzeko era diferentiak daude: batzuk josi eitxen dia, bestiak silikonakin, bestiek keratina daukate... baina danak soltau eitxen dia, puntetan likido bat bota eta kendu leike, disolbentiakin ere kentzen dia".

Bestalde, estensioak jarritakoan ongi zaindu behar dira, eta ez da ile normala bezala garbitu behar. "Zenbat eta gutxiao garbitxu, hobe. Hamabost egunetik behin garbitxuta nahikua da, bestela tximak urtetzen dia. Puntetan erropen suabizantia botatzia, leunaua gelditzeko truko bat izan leike, baina bestela ez da produkto berezirik bihar".

Batez ere jende gazteak jartzen ditu estensioak, baina, berez, edozeini ipini dakizkioke, baldin eta ile oso-oso motza ez badu behintzat. Beraz, orrazkera erabat aldatu nahi duenarentzat hona hemen aukera bat, motzetik luzera, egun batetik bestera.



# GAZTETXEkoak elikagaien inguruko jardunaldiak egin dituzte




**Duela hiru hilabete ekologia eta gai sozialen inguruan lan egiteko beharra ikusi zuten gaztetxekoek eta baita arlo hori jorratzeko ahaleginetan pausoak eman ere. Talde bat bildu zen inguruko gai sozialei buruz hitz egiteko eta hortik hainbat burutazio atera ziren. Gai interesgarriak jorratzeko aukera zegoela ikusi zuten eta informazioa pilatzeari ekin zioten. Horrela, elikagaiak, zentral termikoen gaia, lurraren erabilera, e.a, jorratzea erabaki zuten lehenik, baina hori guztia helarazteko bidea aurkitu behar eta hitzaldiak antolatzea zela hoberena ikusi zuten. Lehenengo hitzaldiak elikagaien ingurukoak izan ziren eta arlo horretan jarraituz, Gabonzahar ferian jendea kontzientziatzeko postua ere ipini zuten.**

## HITZALDIAK

Hitzaldien helburua gai konkretu bati buruz gehiago jakitea edota ikastea da batez ere, eta jendeari telebistan jonutzen ez dituzten zenbait gairi buruz informazio gehiago eskaintzea. Abenduaren 13an egin zen lehen hitzaldia eta makrobiotika inguruko berba prestatu bazuten ere, elikagaien gehiegikeriaz aritu ziren. Lurdes Artatxo, Donostian bizi den emakume kataluniarrak eta gai hauetan guztietan aditua denak hitz egin zuen janarien eta egungo bizimoduan ondo elikatzeak duen garrantziaz. Abenduaren 21ean, herritar bat ere izan zen bertan, Pello Rubio hain zuzen ere. Berak elikagai transgenikoen inguruan egin zuen berba eta kultibo biologikoaren oinarriak ere aztertu zituen.




*Txillarre baserriko Peio Rubiok elikagai transgenikoen eta kultiho biologikoen inguruan egin zuen berba abenduaren 2leko hitzaldian.*

## GABONZAHAR FERIA

Hitzaldiak kontzientziazio bide bat izan ziren. Bertako jeneroa babesteko beharra ikusi zen eta gabonzahar feria gertu zenez, bertan postu bat ipintzea lortu zuten. Elikagai transgenikoez bonbardeatuta gaude eta horren aurrean geuk, gure egunerokotasunean, zer erosten dugun erabakitzeko gaitasuna aldarrikatu nahi izan zuten. Postua ez zegoen salerosketarako prestatuta, jendeak elikagai transgenikoen berri jakitea zen kontua. Gai hauetaz interesatuta egonez gero eta informazio gehiago jaso nahiz gero, gaztetxera jo dezakezue. Helburua ez da alarma soziala sortzea. Arazo hau hainbat eta hainbat produkturi boikota eginez ekidi daitekeela adieraztea baizik.




*Abenduaren 30ean ferian postua jarri zuten gaztetxekoek. Bertan produktu transgenikoak erabiltzen dituzten multinazionalak salatu zhuzten.*

# I ots gg a bE

**Atal honetan parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri Barrenera. Anirnatu! Zuen laguntza ezinbestekaa dugu!**



@ Eguneko unerik txarrena?
Naomi, jaso erropak!

@ Animalla hat izatekotan?
Zezena, adatra jotzeko, ja, ja!

@ Eskolan jarriko zenukeen kartela?
Salgai.

@ Ligatzeko metodo bat?
Lagunei bultza eitxeko esan, eta gero, barkatu...

@ Zer aterako zenuke sute batetatik?
Nere burua. Egoista, ezta?

@ Maleta bat aurkitu duzu milioi batzukin, zer egingo zenuke?
Batzuk hartu ta maletia bueltau.

@ Zer aldatuko zenuke telehistatik?
Coyotek Correcaminos behingoz harrapatzia nahiko nuke.

@ Zerk haserretzen zaitu?
Dutxan nauala butanua amaitziak.

@ Zer da zuretzat maitasuna?
Ingurukuek eskaintzen diatena.

@ [kustezina hazina?
Aberatsei lapurtu, pobrieri emateko. Zelako ona naizen!

@ 11'1uti1 perfektua?
Oindik ez dot ezautu.

@ Zein hiru gauza eramango zenituzke irla bakarti batera?
Bi Iagun ta txalupa bat bueltatzeko.

@ Hilzorian zaude eta papertxo bat eman dizute nahi duzuna idazteko. Zein lirateke zure azken hitzak?
Maite zaituztet!

@ Beherapenetako txoiloak ala tenporada hasierako kalitatea?
Beherapenetako kalitatezko txoiloak.

@ Kantu hat?
Su Ta Gar-en "Zure albotik urrun banago".

@ Pelikula bat?
La vida es bella.

@ Zeri diozu heldurra?
B akardadeari.

@ Agurtzeko?
Adiorik ez, sonik gero arte!

Gazte Asanbladak Mus Txapelketa antolatu du. Txapelketa eaur ostirala, urtanilak 19, izango da gaztetwan. lzen ematea ganeko 22:30ean izango da, eta bikote bakoitzak 500 pta. jarri heharku ditu. Txapelketa gaueko 23:00etan has1ko da.

